

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Ocharcoaga 1961



BILBO, 1959. Urte amaieran Francisco Franco diktadoreak hiria bisitatu zuen eta inguruko mendi hegaletan Bizkaiko industriak erakarritako etorkinak txabola auzoetan pilatzen zirela ikusi zuen. Ez zen hura errejimenak eman behar zuen irudia eta, *caudillo*-aren aginduz, makineria frankista berehala abian jarri zen. 1960ko maiatzean zementuzko auzo moderno bat eraikitzeko lanak hasi ziren eta urtebete geroago 3.672 etxebizitza prest zeuden. Otxarkoaga ezerezetik sortu zen hilabete gutxian.

Diktadoreak egitasmoaren emaitza ikus zezan Bilbora beste bisita bat egin beharrik gabe, Etxebizitza Ministerioak film bat egiteko enkargua eman zion Jordi (orduan Jorge) Grau zuzendariari. Hamar minutu inguruko pelikula ez zen zine aretoetan estreinatu eta No-Doan ere ez zuten eman; Francorentzat soilik egina zen. *Ocharcoaga* filmak txabola auzoen miseriaren nahiz auzo berriaren erosotasun eta



zerbitzuen irudiak jaso zituen, testu propagandistiko lotsagabeaz lagunduta. Baina Franco biziki haserretu zen, eta irudi berriak erantsiarazi zituen.

Hala ere, Francorentzat bezala, egungo ikuslearentzat errejimena loriatzeko jatorrizko asmoa eta azkenean zuzendariak iradokitzen duen mezua ez datoz bat. Hasierako txabolen irudiak alaiak dira, biziak, bertakoak irribarrez agertzen dira, egoera tamalgarrian bizi arren. Eta irudiak musika alaiak lagundu zituen Grauk. Otxarkoagako irudiak aldiz hotzak dira, bizigabeak. Zementua eta angelu zorrotzak dira nagusi eta musikak ere ezinegona eragiten du.

Hala, diktadoreari koipe emate hutsa behar zuena, sotilki eta maisuki, kontra-propaganda bihurtu zuen Jordi Grauk, filma ia 50 urtetan beste inork ikusi ez arren.

argia.com webgunean *Ocharcoaga* filma osorik duzu ikusgai.



Goiko bi argazkietan Jordi Grauren *Ocharcoaga* (1961) filmeko hasierako fotogramak ageri dira; behean, aldiz, filmaren bigarren zatiko irudi hotzak.

Arrastoak

Maskara erromatar bakana saldu dute enkantean

CROSBY GARRETT kaskoa brontzeko maskara erromatar balioetsua da eta duela aste batzuk enkantean saldu zuten Londren. Pieza Cumbrian (Ingalaterra) aurkitu zuten, metal detektagailu baten laguntzaz, eta K.o. I. edo II. mendekoa da, datazioen arabera. Maskara erromatar ugari aurkitu izan dira baina, azken 250 urtetan, buru osoa estaltzen duten hiru besterik ez dituzte topatu, saldu berri den hau barne.

Horrenbestez, 2,3 libra esterlinaren truke, altxor bakana esku pribatuetan dago orain, aditu gehienek iritziz ondareak publikoa izan behar-ko lukeen arren.



Berriki enkantean saldu den maskara oso bakana da; halako hiru besterik ez dira aurkitu.